LEZAMAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LEZAMA
Aretzalde auzoa, 1 - 48196 Bizkaia
Web - www.lezama.org

Telefonoak - Teléfonos

Udal Bulegoak / Oficinas Municipales	Aretxalde, 1	94 455 60 07 - Fax- 94 455 64 57
Baserritarren Elkartea / Cooperativa Agrícola	Aretxalde, 21-B	94 455 60 16
Epaitegia / Juzgado	Aretxalde, 1	94 455 65 37
Ertzaintza	Avd. Gernika s/n - ERANDIO	94 607 90 76
Lezamako Eskola / Escuela Pública Lezama	Garaioltza, 86	94 455 51 19
Farmazia / Farmacia	Aretxalde, 51	94 455 62 96
Frontoia / Frontón	Aretxalde, 60	94 455 61 17
Kiroldegia / Polideportivo	Garaioltza, 86	94 455 51 64
Liburutegia / Biblioteca	Aretxalde 1	94 455 61 26
Parrokia / Parroquia	Aretxalde, 78	94 455 61 16
S.O.S. DEIAK		112
Taxia / Taxi		94 455 61 64
Taxi Irratia / Radio Taxi		94 480 09 09
Ur Matxurak / Averías Agua	San Vicente, 8 - BILBAO	94 487 31 87
Mediku Konsultategia / Consultorio Médico	Aretxalde, 80	94 455 65 01
Txanda Eskatzeko / Cita Previa-Consul. Médico		94 454 30 04 - 94 454 38 78
Osakidetza (Larrialdiak) / Osakidetza (Urgencias)		94 410 00 00
Mancomunidad Txorierri	Herriko Plaza, 3-5º - DERIO	94 454 03 50 - Fax- 94 454 27 38


www.e-Txorierri.com



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
Lurraldearen Antolamenduaren Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE
Dirección de Ordenación del Territorio

PLANOA ETA KALETEGIA
PLANO Y CALLEJERO
LEZAMA





DATOS GENERALES

Comunidad autónoma: País Vasco
Territorio Histórico: Bizkaia
Comarca: valle del Txorierri
Partido Judicial: Bilbao
Extensión: 16,8 Km2.
Población: 2.223 habitantes



Vista Panorámica de Lezama *Lezamaren ikuspegi panoramikoa*

MEDIO FÍSICO

Municipio enclavado en el Valle del Txorierri, de una extensión de 16,8 km2, población de 2.223 habitantes.

Limita con los municipios siguientes al Este con Larrabetzu, al Sur con Galdakao, al Oeste con Zamudio y al Norte con Gamiz-Fika.

El acceso a Lezama se puede realizar a través del Corredor del Txorierri y la carretera Asúa-Erletxes, existiendo comunicaciones de lineas regulares de autobuses de las Compañías Bizkaibús y Lujua o los ferrocarriles de Eusko Trenbideak.

EDIFICIOS Y LUGARES DE INTERÉS

Iglesia de Santa Maria. Edificio en el barrio de Aretxalde que parte de un núcleo gótico construído en el siglo XVI, con sucesivas transformaciones y ampliaciones.

Su fábrica es de sillería, excepto la torre que es de mampostería, con un amplio pórtico con estructrura de madera sobre zócalo de piedra que rodea todo el cuerpo de la iglesia.

Dentro del pórtico se encuentra la Mesa de la Anteiglesia, recordando su antigua función como espacio de reunión de la comunidad municipal de Lezama.

Interior dividido en tres naves, destacando a los pies el coro en alto sobre arco carpanel.

La capilla mayor completa plenamente su imagen con la presencia de un retablo barroco obra de Bernardo del Anillo, compuesto de tres calles y ático, destacando en su calle central la imagen de la Asunción de María , obra del escultor Pedro Miguel del Pozo, de estilo barroco.



Iglesia de Santa María *Andra Mari Eliza*

Ermita de La Cruz. Situado en el barrio de Aretxalde frente a la carretera Asúa-Erletxes y abierta totalmente al que fuera Camino Real Bilbao-Gernika.

Es la obra más notable dentro del conjunto de ermitas de nuestras tres anteiglesias, y la noticia más antigua de su existencia correspondiente a mediados del siglo XVI.

Edificio de planta en cruz, de una sola nave, crucero y cabecera recta.



Ermita San Antolín *San Antolín Baseliza*

Ermita San Antolin. Ermita enclavada en el municipio de Larrabetzu. Obra gótica por sus características, a pesar de que las primeras referencias documentales datan de siglo XVIII.

Su parte más destacada es la portada por presencia de motivos decorativos.

Planta rectangular, de una sola nave, tiene la peculiaridad de tener situada la campana en el interior de la cubierta.

En el presbiterio se encuentran las imágenes de San Antolín y San Roque.

Edificio Txoko Goitioltza *Goitioltza Txokoa Izeneko Eraikina*



Oxangoiti. Casa rural en el barrio de Garaioltza de fines del siglo XVII ennoblecida, como casa solar que fué de la familia Ojangoiti.

Edificio de planta rectangular, cubierta a dos aguas, dividido en dos pisos y camarote.

Construído el primero en piedra aparejada en mampuesto a lo largo de sus muros y sillería en sus esquineros y marco de los vanos, siendo la parte más destacada del mismo el soportal , definido por viga de madera que apoya sobre pilastras en sus extremos y columna toscana en el centro, sobre ella y enmarcado por vigas de madera se encuentra el escudo Ojangoiti.

Edificio Txoko Goitioltza. Edificio sito en el barrio de Goitioltza, antiguamente Escuelas de Barriada y en la actualidad centro socio-cultural y recreativo municipal

Casa torre. Situada en el barrio de Aretxalde, es un bello ejemplo de Arquitectura Señorial.

Torre de planta cuadrada y cubierta a cuatro aguas con sólidos muros aparejados en sillería. Erigida en el siglo XIV.

Escudo. Escudo que data del siglo XVII que destaca en la fachada del caserio Isusquiza en el barrio de Aretxalde, edificio reedificado en el año 1848 por Eugenio Lezama Leguizamón.



Columna Toscana / Zutabe Toskanarra

Monumento Mikel Zarate. Monolito erigido en recuerdo a Mikel Zárate Lejárraga, en la plaza que lleva su nombre muy próxima a la que fue su vivienda. Hijo que fué de Lezama, este sacerdote destacó por su gran labor en favor del Euskera.

TXAKOLÍ

El txakolí es un vino joven afrutado con unas características específicas, entre sus variedades encontramos el tinto, el blanco y el ojo de gallo, ideales acompañantes de carnes y pescados.

Históricamente Lezama ha sido un municipio con una gran tradición en la producción de txakolí. Hasta hace fechas recientes esta producción se efectuada de una manera artesanal, en la que los caldos elaborados eran de una calidad inferior a los productos que actualmente se elaboran.

Hoy día la elaboración del txakolí es una actividad de gran importancia en el municipio, existiendo actualmente inscritos en el Consejo Regulador de la Denominación de Orígen "Bizkaiko Txakolina" un total de 27 viticultores con 11 bodegas destinadas a tal fin, en una superficie destinada a viñedos de 11,5 Has, y una producción estimada de 75.000 litros.



Viñedos *Mahastiak*


AREAS Y ESPACIOS DEPORTIVOS PÚBLICOS EN LEZAMA

Fronton Municipal cubierto.
Situación: Barrio de Aretxalde- Casco antiguo del municipio.
Actividad principal: Deporte de pelota a mano.

Polideportivo Municipal.
Situación: Barrio de Garaioltza, junto a las Escuelas Municipales.
Instalaciones : Campo de hierba artificial para futbito
Frontón cubierto.
Rocódromo.
Parking público
Edificio para aseos y vestuarios.

Campos Polideportivos en las Escuelas Municipales.
Situación: Barrio de Garaioltza, centro del municipio.
Instalaciones polivantelentes: Campos de tenis.
Campos de baloncesto.
Campos de balonmano.

Campo de Tiro Municipal.
Situación: Barrio de Aretxalde, Carretera al Vivero a 3 kms. del centro del municipio.
Instalación: Foso universal.



Polideportivo Municipal *Udal Kiroldegia*

INSTALACIONES DEPORTIVAS PRIVADAS EN LEZAMA

En el barrio de Garaioltza de Lezama, están ubicadas las instalaciones deportivas del Athletic Club de Bilbao.

EL CAMINO DE SANTIAGO EN LEZAMA

Durante la Edad Media se siguieron usando las antiguas rutas romanas.

Una de estas rutas coincide con la ruta jacobea litoral vizcaína, que desde Francia cruzaba Gipuzkoa y Bizkaia, recorriendo entre otros municipios, Larrabetzu, LEZAMA y Bilbao.

Parte del camino de Santiago, concretamente en el sector Bilbao-Bermeo coincidía con otras vías igualmente antiguas: la ruta Juradera, que recorrían los Señores de Vizcaya para jurar los fueros en Lezama, Gernika y Bermeo.

Por lo que a Lezama se refiere, el Camino Viejo Bilbao-Gernika, que es el nombre que ha conservado en los mapas de principios de siglo, proseguía desde Lezama por terrenos de Zamudio, bordeando la Torre Larragoiti y el actual caserío Uxinas, para ascender hacia Artxanda por Gastañazabalaga y Mendigana hasta el Alto de Santo Domingo y alcanzar así Begoña y Bilbao por la Puerta de Zamudio.

Trayecto (Etapa Gernika-Bilbao, 36,75 km.)

Km. 24,6: Larabetzu. Girar hacia la derecha dirección Bilbao.

Km. 27,8: Santa María de Lezama. A la salida del pueblo, girar hacia la izquierda pasando junto a la parroquia en dirección Artxanda. La ruta jacobea sigue por la carretera general atravesando Zamudio y Derio.

Refugios y lugares de acogida. Lezama dispone de albergue de peregrinos.

FIESTAS

2º Domingo de Julio (Goitioltza)
San Antolín **2 de Septiembre** (Aretxalde)
Andra Mari **8 de Septiembre** (Lezama)
Andra Mari **10 de Septiembre** (Garaioltza)
La Cruz **14 de Septiembre** (Aretxalde)

DATU OROKORRAK

Autonomia Erkidegoa: Euskal Autonomia Erkidegoa
Lurralde Historikoa: Bizkaia
Eskualdea: Txorierriko haranean
Epai-barrutia: Txorierriko haranan
Azalera: 16,8 Km2.
Biztanleak: 2.223



Lezamaren ikuspegi panoramikoa *Vista Panorámica de Lezama*

INGURUNE FISIKOA

Txorierri haranean dago udalerria, 16,8 km2 ditu, eta 2.223 biztanle.

Honako udalerri hauek ditu mugakide: Ekialdean Larrabetzu, Hegoaldean Galdakao, Mendebaldean Zamudio eta Iparraldean Gamiz-Fika.

Lezamara Txorierriko barnebidetik eta Asua-Erletxes errepidetik etor daiteke; era berean Bizkaibus eta Loiu konpainien autobus zerbitzua ere erabil daiteke eta trenez ere hel gaitezke, Eusko Trenbideak konpainiak eskaintzen dituen zerbitzuen bidez.

ERAIKINAK ETA LEKU INTERESGARRIAK

Andra Mari eliza: Eraikin hau Aretxalde auzoan dago; XVI. mendean eraikitako gune gotikoa du oinarri, baina ordudanik hainbat aldaketa eta handitze-lan egin dira.

Harlanduzko fabrika du, dorrea izan ezik, harlangaitzezkoa baita. Era berean, elizaren gorputz osoa inguratzen duen harrizko zokaloaren gaineko zurezko egitura duen arkupe zabala ere badu.

Arkupearen barruan Elizpearen Mahaia dago, antzina Lezamako udal erkidegoa biltzeko erabiltzen zela gogoratuz.

Barrualdea hiru nabetan banatuta dago eta nabarmentzekoa da oinarrian arku karpanelaren gainean dagoen goragoko korua.

Kapera nagusiak guztiz osatzen du bere irudia Bernardo del Anillok egindako barrokoko erretaulerekin. Horrek hiru kale eta teilatupea ditu; erdiko kalean Mariaren JasOkundearen irudia dugu, Pedro Miguel del Pozo eskultorearen barroko estiloko lana.



Gurutzeko Baseliza *Ermita de La Cruz*

Gurutzeko baseliza. Aretxalde auzoan dago, Asua-Erletxes errepidearen aurrean eta Bilbo-Gernika errepidea izan zen horri guztiz irekita.

Geure hiru elizateetako ermiten artean, hau dugu lanik aipagarriena. Berari buruzko berririk antzinakoena XVI. mendearen erdialdekoa da.

Gurutze itxurako oinplanoa du, nabe bakar bat, gurutzadura eta buru zuzena.



Landa-etxea Oxangoiti *Casa rural Oxangoiti*

San Antolin baseliza. Baseliza hau Larrabetzu udalerrian dago. Bere ezaugarriak aztertuta, lan gotikoa da, nahiz eta berari buruzko lehenengo aipamen dokumentalak XVIII. mendekoak izan.

Alderik nabarmenena aurrealdea da, hainbat dekorazio-motibo baititu.

Oinplano angeluzuzena du, nabe bakarrekoa; bitxikeria gisa, aipatu beharra dago kanpaia estalkiaren barruan duela.

Presbiterioan San Antolin eta San Roqueren irudiak daude.

Dorretxea *Casa Torre*





Armarria *Escudo*

Oxangoiti. Garaioltza auzoan dagoen landa-etxea. XVII. mendearen amaierakoa da, noble bihurtuta, Ojangoiti familiaren etxea izan baitzen.

Oinplano angeluzuzeneko eraikina da, bi isuriko estalkiaz; bi solairu eta ganbara ditu.

Lehenengo solairuko hormak harlangaitzean prestatutako harriz eraikita daude; baoen markoak eta ertzak, aldiz, harlanduzkoak dira. Bertako alderik azpimarragarriena arkupea da, zurezko habeak definituta: muturrak pilastretan daude bermatuta eta erdian zutabe toskanarra du; haren gainean eta zurezko habeen bitartez markoztatuta, Ojangoiti armarria dago.

Goitioltza Txokoa izeneko eraikina. Goitioltza auzoan dagoen eraikina; antzina auzo-eskola zen eta, gaur egun, udalaren gizarte, kultur eta jolas zentroa.

Dorretxea. Aretxalde auzoan dago eta Jaun Arkitekturaren adibide ederra dugu.

Oinplano karratuko dorrea da, lau isuriko estalkiaz. Harlanduz prestatutako horma sendoak ditu. XIV. mendean eraiki zen.

Armarria. Armarria XVII. mendekoa da. Aretxalde auzoko Isusquiza baserriaren fatxadan ikus dezakegu; eraikin hori 1848an eraiki zuen berriro Eugenio Lezama Leguizamónek.



Mikel Zárate Monumentua *Monumento Mikel Zárate*

Mikel Zarate monumentua. Mikel Zárate Lejárragaren omenez eraikitako monolitoa. Bere izena duen plazan dago, bere etxea izan zenaren alboan. Lezamako seme izaki, euskararen alde lan handia egin zuelako nabarmendu zen gure apaiza.

TXAKOLINA

Txakolina fruta gustuko ardo gaztea da, beren beregiko ezaugarriduna; besteak beste, beltza, zuria eta oilar-begi aldaeretakoa izan daiteke, eta okela eta arrainekin batera hartzeko aproposa da.

Historikoki, Lezamak tradizio handia izan du txakolingintzan. Duela gutxira arte, artisau modura ekoizten zuten, eta ateratzen zituzten ardoen kalitatea oraingoena baino eskasagoa zen.

Txakolingintza, egun, oso garrantzitsua da udalerri honetan, eta "Bizkaiko Txakolina" Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzailean guztira 27 ardogile inskribatuta daude, 11,5 Hektarea mahastitan hedatuta, langintza horretarako erabiltzen dituzten 11 upeltegirekin, eta 75.000 litro inguruko produkzioarekin.

KIROLETARAKO HERRI EREMU ETA GUNEAK LEZAMAN

Udal Frontoia. estalia
Non: Aretxalde auzunean, udalerriko alde zaharrean.
Jarduera nagusia: eskupilota

Udal Kiroldegia.
Non: Garaioltza auzunean, Udal Eskolen ondoan.
Instalazioak : Belar artifizialeko zelaia, futbitorako
Frontoi estalia.
Rokodromoa.
Parking publikoa
Komun eta aldagelen eraikina.

Kirol zelaiak Udal Eskoletan.
Non: Garaioltza auzunean, erdigunean.
Erabilpen ugaritarako instalazioak: Tenis zelaiak.
Saskibaloi zelaiak.
Eskubaloi zelaiak.

Udaleko Tiro Zelaia.
Non: Aretxalde auzunean, Haztegirako Errepidean, erdigunetik 3 kilometrora.
Instalazioa: Hobi unibertsala.



Athletic Clubaren kirol instalazioak *Instalaciones deportivas del Athletic Club*

KIROL INSTALAZIO PRIBATUAK LEZAMAN

Lezamako Garaioltza auzunean Bilboko Athletic Clubaren kirol instalazioak daude.

DONE JAKUE BIDEA LEZAMAN

Erdi Aroan antzinako bide erromatarrak erabiltzen segitu zen.

Ibilbide horietako bat Bizkaiko kostaldeko Done Jakue bidearen pare doa; Frantziatik etorri eta Gipuzkoa eta Bizkaian zehar zihoan besteak beste, Larrabetzu, LEZAMA eta Bilbotik igaroz.

Done Jakueren bidearen zati bat, Bilbo-Bermeo zatian zehazki, haiek bezain zaharrak ziren beste bideen pare zihoan: Bizkaiko Jauntxoek foruen zina egiteko ibiltzen zuten zin egiteko bidearen pare.

Lezamari dagokionez, Bilbo-Gernika errepide zaharra, mende hasierako mapetako izenari eutsiz, Lezamatik Zamudioko lurretan barrena segitzen zuen, Larragoiti Dorrea eta oraingo Uxinas baserria inguratuz, Artxandarantz igortzeko, Gastañazabala eta Mendiganatik, Santo Domingo Gaineraino, eta Zamudioko Atetik Begoña eta Bilboraino heltzeko.

Ibilbidea (Gernika-Bilbo etapa, 36,75 km.)

24,6. Km.: Larrabetzu. Eskuinetara biratu, Bilborantz.

27,8. Km.: Lezamako Andra Mari. Herriaren irteeran, ezkerretara biratu, elizaren ondotik Artxandaranzko bidetik igaroz. Done Jakueren bideak errepide nagusitik segitzen du, Zamudio eta Derion zehar.

Aterpetxeak eta harrera tokiak.
Lezaman erromesen aterpetxeak daude.

JAIAK

Uztaileko 2. domeka (Goitioltza)
San Antolín **Irailak 2.** (Aretxalde)
Andra Mari **Irailak 8.** (Lezama)
Andra Mari **Irailak 10.** (Garaioltza)
Kurutz **Irailak.** (Aretxalde)